

Beharbada jakingo duzunez, BERRIA Taldeak “Zure ziztada behar dugu” kanpaina jarri du abian euskaldunon komunitateari zuzenduta. Ekimen horren bitartez, BERRIA taldeak bere komunikabideen sarea sendotu eta haiek etorkizunari begira jartzea du helburu.

Kanpaina babes handia biltzen ari da kultura munduko eta herrigintzako eragileen artean eta Arrasateko Euskalgintza osatzen dugun erakundeek ere bat egin dugu ekimenarekin. Gure ustetan, euskarazko hedabideen sektorea, eta tartean BERRIA taldearen proiektua, ezinbestekoa delako euskararentzat eta euskal kulturarentzat; euskara ikasten ari direnentzako oso garrantzitsua delako; euskal eskolak behar duelako; geure mundua eta kanpoko geure hizkuntzan ematen dituelako; bakarra eta geurea delako; geuk sortua, euskaraz bizi nahi duen komunitatearena.

Baina oraindik badago zeregina, oraindik gure parte hartzea eta ekarpena behar ditu BERRIALagunen komunitateak, egia baita halaber BERRIA Taldearen proiektua egoera zailean dagoela, eta etorkizunari indartsu helduko badio denon ekarpenak beharko dituela, txikiak izanagatik. Beraz, **‘Zure ziztada behar dugu’** ekimena Berrialagunak egiteko kanpaina ere bada, milaka ekarpen bildu nahi dituen dei handi eta zabala, euskaltzale guztioi egindako deia.

Datozen egunetan eta hilabeteetan **Arrasateko Euskalgintzak zenbait ekintza eramango du aurrera mezu hori zabaltzeko** eta bide batez **BERRIari bultzada ekonomiko xume bat emateko**. Lehenengoa **azaroaren 17an, Seber Altubeko** azokarekin antolatuko dugun **tonbola** izango da. Bertara hurbiltzera animatzen zaitugu, seguru egokitzen zaizula Ibai Arteko dendariak esku zabal emandako opariren bat! Bestalde, aurreratzen dizugu **urtarrilerako Amaia antzokia beteko duen ekitaldi bat** ari garela prestatzen Debagoieneko erakunde eta kultur gile ugariarekin batera.

Horrez gainera, **zure ekarpen pertsonala egitera animatzen zaitugu. Erraza da eta nahi duzuna jar dezakezu**. Gutun honetan eskatzen diren datuak bete eta bidali edo sartu interneteko helbide honetan: www.berria.info/berrialaguna. Informazio gehiago ere bertan duzue.

Eskerrik beroenak alde zuzenetik, BERRIA taldearen eta Arrasateko Euskalgintzaren izenean.

Laguntza emateko bete datuok eta bidali:

BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 Andoain edo laguna@berria.info-ra

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria eta posta kodea:

Kontu zenbakia:

Telefonoa:

Nortasun agiria:

Posta elektronikoa:

Urtean zenbateko ekarpena egin nahi duzun:

